

Gure baserria Galdakaon kokatuta dagoenez, proiektua Bizkaiko ikastolentzat, hezitzaileentzat, gurasoentzat eta haurrentzat abiatuta dago.

Bizkaiaiko guraso eta hezitzaileentzat:

Gure programak Bizkaiaiko guraso eta hezitzaileentzat ere zuzenduak dira. Haurrekin batera esperimintatzeko aukera izango dute hauekin dituzten heldu-haur loturak indartuz. Zergatik nahi ditugu familiak erakarri? Familiak haur hauen erreferente diren heinean, hauek egiten dituzten ekintzetatik ikasten dute haurrek, familia hauek naturarekiko atxikimendua erakusten badute honekiko interesa haurrengana transmititu dezakete haurrenaren, bere ongizatean eragina izan daitekeen printzipio batzuk transmitituz.

Haurrak (3-16 urte):

Gure jardueretan, haur bakoitzak bere erritmoan eta modu dibertigarrian garatu dezake bere trebetasunak eta autonomia. Haur hauek, 3-16 urte bitarteko umeak, sormena, ikasketa-gaitasunak eta garapen pertsonala modu integralean garatingurune seguru, eroso eta inspiratzaile bat sortuko dugu. Gure helburua haur bakoitzaren potentzial bakarra sustatzea da, haien beharrak, interesak eta trebetasunak kontuan hartuta. Horretarako, hezkuntza metodologia berritzaileak eta ludikoak baliatuko ditugu, haurrek euren irudimena askatasunez esploratzeko eta ikaskuntza esperientzia aberasgarriak izateko aukera izan dezaten. Gainera, haurren adin tarte zabala denez, hainbat ekintza desberdin ditugu adin tarte bakoitzarentzako.

Bizkaiaiko Ikastoleentzat proposatutako ekintzak:

Ikastolei programa didaktiko berritzaileak eskaintzen dizkiegu, hezkuntza esperientzia aberatsagoa eta integrala sortzeko.

Baserrian umeen adinaren arabera segmentazioa ere egingo dugu hainbat ekintza proposatuz:

- (3-6): Jolas esploratzaileak eta sentsorialak:
 - Esperientzia praktikoak, hala nola, animaliak elikatzea, haziak landatzea edo ingurunea eta natura esploratzea.
- (7-11): Tailer praktikoak: Hegaztientzako etxetxoak eraikitzea, baratzeak zaintzea edo birziklapenaren inguruan ikastea.
 - Ingurumen hezkuntza, haien ulermen mailari egokitua.
 - Ibilbide gidatuak tokiko ekosistemak esploratzeko.
- (12-16): Taldeko jarduerak, arazoak konpontzea eta lidergotza sustatzea (adibidez, lursail bat disenatzea).

- Proiektuaren parte hartze kolektiboa: baratze bat zaintzea adibidez.